

R. GOSCINNY **Asterix** A. UDERZO


# IDEFIX<sup>®</sup>

ETA MENDERAKAITZAK

LATINARI ZAUNKA!

Testuak: M. Choquet - Y. Coulon - J. Erbin

Marrazkiak: J. Bastide - P. Fenech



SALVAT

# GOSCINNYK ETA UDERZOK AURKEZTUTA

## LATINARI ZAUNKA!

Testuak: M. Choquet - Y. Coulon - J. Erbin

Marrazkiak: J. Bastide - P. Fenech








K.A. 52. URTEAN GAUDE. ERROMATARREK LUTEZIA OSOA ARMAZ HARTUTA DAUKATE... OSOA? EZ! IDEFIX BURU DUELA, LUTEZIAKO ANIMALIA MENDERAKAITZEN BANDA BATEK ORAINDIK ERE BURUA MAKURTU GABE EUSTEN DIE INDarREZ SARTU NAHI DUTENEL. ETA BIZIMODUA EZ DA BATERE EROSOA LUTEZIA ERROMATARTU NAHI DUTEN LABIENUS JENERALA ETA HAREN TXAKUR TALDEARENTZAT...



**IDEFIX**, ABENTURA HAUETAKO HEROIA, ARGIA ETA BIZIA DA, USAIMEN FINEKOA. MENDERAKITZEN BURU, LUTEZIA ERROMARTU NAHI DUTENEN AURKA DABIL BORROKAN. GAUZA BAKARRAK ATERATZEN DU BERE ONETIK: TXIKIA DELA ESATEAK!



**TURBINE** LUTEZIAKO TXAKURRIK BIZKORRENA DA! LAGUNTZEKO PRESTUTASUN HANDIA BADU ERE, ZORITXARREZ, ESAN ORDUKO AHAZTEN ZAIZKIO IDEFIXEK AZALDUTAKO ASMO GUZTIAK ...



**HARAKIX** TALDEKO INDARTSUA DA. ERROMATAR TXAKUR TALDEEN AURKA OLDARTU ETA AIREAN BOTATZEA DA GEHIEN GUSTATZEN ZAIONA! TOLOSARRA JAIOTZEZ, OILASKIX ETA ARDIKINE HARAKINAK DITU NAGUSI, ETA HAIEK EGINDAKO LUKAINKEKIN BURUA GALTZEN DU!



**BALENTINE** KATEME ASKEA DA, KONFIANTZA HANDIKOA ETA ZIRIKATZAILEA. LUTEZIAKO TXOKO GUZTIAK EZAGUTZEN DITU, ETA ATZAPAR ZORROTZAK ATERATZEN DITUENEAN, ERROMATAR TXAKURREK GORRIAK IKUSTEN DITUZTE!




**GAUTXORIX** HONTZA AMNESIX DRUIDAREKIN BIZI DA BASOAN, ERROMATARRENGANDIK IHESEAN. IKUSI ETA IKASI, NAGUSIAREN ANTZERA DRUIDATZAT DU BERE BURUA. EDABEAK PRESTATZEKO OSAGIAK NAHASTU ARREN, SEKULA EZ DU DESIRATUTAKO EMAITZARIK LORTZEN!



**ASMATIX** USO ZAHARRA LUTEZIARRA DA. GALIAR GUDUETAKO BETERANOAZAKI, CAMULOGENO GALIAR BURUZAGI GARAITUARI MEZUAK ERAMATEN ZEBILELA ZAURITU ZUTEN. LUTEZIAREN OROIMEN BIZIA, BERE JAKINTZA GUZTIA PASATZEN DIE MENDERAKITZEI. ETA, NOLA EZ, KALEAN USO, OGIA GOXO! EZIN EZETZIK ESAN LURRERA BOTATAKO OGI-PAPURREI!

# TXEBROLETINEREN PILOTATXOA

TESTUA: YVES COULON  
MARRAZKIAK: PHILIPPE FENECH







GALIAGO TXAKUR GUZTIEN  
ARTEAN, TXEBROLETINE ZEN  
AUSARTENA...



BAINA EGUN  
BATEZ, LABIENUS  
ERROMATAR  
JENERALA ETORRI  
ZEN LUTEZIA  
INDARREZ HARTZERA!

ATZO BAILITZAN  
GOGORATZEN  
NAIZ...



GERATU ERE EGIN GABE, MEZU  
SEKRETUAK HELARAZI NIZKIEN  
GURE TROPA KEMENTSUEI!



ALPERRIK ORDEA,  
ZERUA BURU GAINERA  
ERORTI BAITZITZAIGUN...



CAMULOGENO  
GARAITUA IZAN ZEN...



ETA TXEBROLETINE  
AUSARTAK EZ ZUEN  
BERRIZ BERE PILOTA  
IKUSI!



